Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko abenduaren 13a, ostirala — 238 — Viernes, a 13 de diciembre de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*Nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzen 2020ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak 2019ko abenduaren 3ko bileran honako erabakia hartu du:

«Nekazari Gazteentzako Planaren xede nagusia da euskal nekazaritza sektorean nekazari gazteak sartzea eta mantentzea. Horren guztiaren planteamendua da jarduera garatzea, eta nekazarien bizi baldintzak euskal gizarteko gainerakoenekin homologagarri egitea. Nekazari Gazteen Planaren neurrien barruan daude 41 urtetik beherako nekazari gazteei ematen zaizkien hasteko laguntzak, nekazaritzako ustiapenen titular edo titularkide gisa sartzeko: hau da, gazteak nekazaritzako ustiapenen titularitatea lortze aldera, ustiategiak martxan jartzeko laguntzak ematea.

Maiatzaren 10eko 9/2016 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategiei laguntzak ematekoak: dirulaguntzak nekazaritza ustiategietako inbertsioetarako eta nekazari gazteek enpresak sortzeko, III. kapituluan arautzen ditu laguntza horien zenbatekoak eta beharkizunak.

Nekazari gazteak instalatzeko laguntza horiek aurreikusita daude Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren –Europako Batzordeak 2015eko maiatzaren 26ko Erabakiaren bidez onartutakoan–, 6.1 neurrian. Europar Batasunak % 80ko finantzaketa jartzen du Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (Feader).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren 2020ko aurrekontuetan laguntza horientzat baliabide ekonomiko hauek jaso dira, bi aurrekontu ekitaldietan banatuta: 900.000 euro.

Horrenbestez, erabaki honen bidez aipatu dirulaguntzen 2020ko deialdia onartzen da. Aurreikusitako gastua inbertsioen gauzatzeari hobeto egokitzeko eta dirulaguntzak banatzeko erabakia aurreratu ahal izateko, dagokion gastu espedientea aldez aurretik bideratzea aurreikusten da, abuztuaren 2ko 37/2006 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 31.5.b) artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio, zenbatekoa dena delako, laguntza deialdi hau onartzea.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Convocatoria 2020 de las ayudas a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras.*

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 3 de diciembre de 2019, ha adoptado el siguiente acuerdo:

«El Plan de Jóvenes Agricultores tiene como objetivo primordial impulsar la incorporación y mantenimiento de jóvenes agricultoras y agricultores ya instalados en el sector agrario vasco. Todo ello desde un planteamiento de desarrollo de la actividad y de condiciones de vida homologables a los del resto de la sociedad vasca. Dentro de las medidas incluidas en el plan se encuentran las ayudas a la primera instalación de jóvenes agricultores y agricultoras menores de 41 años como titulares o cotitulares de explotaciones agrarias, que tienen como objetivo fomentar su acceso a la titularidad de las explotaciones agrarias mediante ayudas para la puesta en marcha de la explotación.

El Decreto Foral 9/2016, de 10 de mayo, sobre ayudas a las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa: ayudas a inversiones en explotaciones agrarias y ayudas a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras, regula las cuantías y los requisitos de acceso a estas ayudas en el capítulo III.

Estas ayudas a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras (primera instalación) están contempladas en la medida 6.1 del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015/2020, aprobado por la Comisión Europea mediante Decisión de 26 de mayo de 2015, con una cofinanciación de la Unión Europea del 80 % a través del fondo Feader.

Los recursos económicos destinados al pago de estas ayudas en los presupuestos del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa ascienden en 2020 a un total de 900.000 euros, repartidos en dos ejercicios presupuestarios.

Mediante el presente acuerdo se aprueba la convocatoria 2020 de las citadas ayudas. Para una mejor adecuación del gasto previsto a la ejecución de las inversiones y al objeto de adelantar la resolución de concesión de las subvenciones, se prevé la tramitación anticipada del expediente de gasto correspondiente, de acuerdo con lo establecido en el Decreto Foral 37/2006, de 2 de agosto.

De conformidad con lo establecido en el artículo 31.5. b) y la disposición adicional primera de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde al Consejo de Gobierno Foral, por razón de la cuantía, la aprobación de dicha convocatoria de ayudas.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

EK\CV GAO-I-2019-07668

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzen 2020ko deialdia: erabaki honen eranskinean jaso dena. Aipatutako laguntzak maiatzaren 10eko 9/2016 Foru Dekretuaren III. kapituluan arautzen dira.

*Bigarren.* Onartzea aipatutako deialdiari dagokion gastu espedientearen aldez aurreko tramitazioa, 900.000 euroko zenbatekoa duena, 2020ko ekitaldiko aurrekontu proiektuaren arabera Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren kredituen barne dauden Landa Garapenaren eta Nekazaritza Egituren programako ondorengo partiden kargura:

1.0240.400.470.00.08.2020: 600.000 euro.

5.0240.400.470.00.08.2023: 300.000 euro.

Baldin 2020ko aurrekontuen foru arauan onartzen diren kredituak hasieran aurreikusitakoak baino handiagoak badira, departamentu kudeatzaileak hartuko du deialdi honetan aplikatzeari buruzko erabakia. Aplikatzea erabakiz gero, beste deialdirik egin gabe, dagokion gastu espedientea tramitatu beharko du dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik.

Ildo beretik, baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

*Hirugarren.* Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuari Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2020. urterako aurrekontu orokorrak onartzen direnean behar diren gastuak baimendu ditzan, behar adina kreditu egokia dagoela egiaztatu ondoren.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Bide hori erabili aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete partikularrek Diputatuen Kontseiluari, aipatutako egunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egokitzat hartutako beste edozein ere aurkez daiteke.»

Donostia, 2019ko abenduaren 3a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (7668)

ERANSKINA

*Nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzen 2020ko deialdia.*

1. *Oinarri arautzaileak.*

Maiatzaren 10eko 9/2016 Foru Dekretua –I eta III Kapituluak–, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategiei laguntzak ematekoa: dirulaguntzak nekazaritza ustiategietako inbertsioetarako eta nekazari gazteek enpresak sortzeko (2016ko maiatzaren 16ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 91 zk.); abenduaren 12ko 23/2017 Foru Dekretuak, abenduaren 11ko 29/2018 Foru Dekretuak eta abenduaren 3ko 53/2019 Foru Dekretuak egindako aldaketekin.

2. *Baldintzak eta onuradunak.*

Deialdi honetan jasotako laguntzak lortu ahal izango dituzte ondoko baldintza hauek betetzen dituztenek: batetik, onuradun izaera lortzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako baldintzak; eta bestetik, 1. atalean aipatutako foru dekretuak 25. artikuluan xedatutako baldintza bereziak.

ACUERDA

*Primero.* Aprobar la convocatoria de 2020 de las ayudas a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras, previstas en el capítulo III del Decreto Foral 9/2016, de 10 de mayo; se acompaña como anexo al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la tramitación anticipada del expediente de gasto correspondiente a la citada convocatoria, que alcanza un importe de 900.000 euros, con cargo a las siguientes partidas del programa de Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias, incluidas en los créditos del proyecto de presupuestos del ejercicio 2020 del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural:

1.0240.400.470.00.08.2020: 600.000 euros.

5.0240.400.470.00.08.2023: 300.000 euros.

En el supuesto en que los créditos presupuestarios que resulten aprobados en la norma foral de presupuestos para 2020 fueran superiores a las cuantías inicialmente estimadas, el departamento gestor podrá decidir sobre su aplicación a la convocatoria, previa tramitación del correspondiente expediente de gasto antes de la resolución, sin necesidad de nueva convocatoria.

Asimismo, el importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*Tercero.* Se faculta al diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural para autorizar los gastos que correspondan, una vez aprobados los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2020 y comprobada la existencia de crédito adecuado y suficiente.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía las personas particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Consejo de Gobierno Foral en el plazo de un mes desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.»

San Sebastián, a 3 de diciembre de 2019.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (7668)

ANEXO

*Convocatoria 2020 de las ayudas a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras.*

1. *Bases reguladoras.*

Capítulos I y III del Decreto Foral 9/2016, de 10 de mayo, sobre ayudas a las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa: ayudas a inversiones en explotaciones agrarias y ayudas a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 91 de 16 de mayo de 2016), modificado por los Decretos Forales 23/2017, de 12 de diciembre, 29/2018, de 11 de diciembre y 53/2019, de 3 de diciembre.

2. *Requisitos y personas beneficiarias.*

Podrán acceder a las ayudas aquellas personas que cumplan tanto los requisitos para obtener la condición de persona beneficiaria contemplados en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, como los requisitos específicos establecidos en el artículo 25 del decreto foral citado en el apartado primero.

EK\CV GAO-I-2019-07668

3. *Dirulaguntzen xedea.*

Nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntza hauen xedea da 41 urtetik beherako nekazari gazteen lehen instalazioa sustatzea, nekazaritzako ustiapenen titular edo titularkide gisa sartzeko: hau da, gazteek nekazaritzako ustiapenen titularitatea lortze aldera, ustiategiak martxan jartzeko laguntzak ematea.

4. *Aurrekontu kredituak.*

Deialdi honen gastu osoa 900.000 eurokoa da, eta Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuko Landa Garapenaren eta Nekazaritza Egituren programako kontu sail hauen kargura emango da:

1.0240.400.470.00.08.2020: 600.000 euro.

5.0240.400.470.00.08.2023: 300.000 euro.

Edonola ere, espedientea aldez aurretik tramitatzen denez, dirulaguntzak eman ahal izateko ezinbestekoa izango da haiek ematea erabakitzen den unean kreditu egoki eta nahikoa egotea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2020. urterako aurrekontu orokorretan.

5. *Dirulaguntzen zenbatekoa.*

Laguntzen zenbatekoa horiek arautzen dituen foru dekretuaren 32. artikuluak dioenarekin bat etorriz ezarriko dira.

6. *Eskaerak aurkezteko tokia eta epea.*

Laguntza eskaerak Nekazari Gaztearen Bulegoan aurkeztu beharko dira (ustiategiari dagokion eskualdeko nekazaritza bulegoan), deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita 2020ko urtarrilaren 17ra bitarte, biak barne.

7. *Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.*

Eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

— NAren fotokopia, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren esku ez badago.

— Ardurapeko aitorpena: Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko inongo debekurik ez duela jasotzen duena.

— Enpresa plana: laguntza hauek arautzen dituen foru dekretuaren 30. artikuluan dauden alderdiak jasoko dituena.

— Gizarte Segurantzaren ziurtagiria: nekazaritza jardueratik eratorritako baliaezintasun absolutu edo osoko pentsiorik ez jasotzearena.

— Ustiategiaren titularitatea eskualdatzeko edo elkarte ustiategi batean sartzeko kontratuaren dokumentu pribatua.

— Egindako nekazaritzako prestakuntza ikastaroen ziurtagiriak.

— Nekazari gazte gisa instalatzeko gastuen aurrekontua edo egiaztagiria.

— Laguntzaren zenbatekoa sartu beharko den kontuari buruzko datuak.

— Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, baita eskatzaileak onuraduna izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen zerga informazioa (PFEZ) ere. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleeta-

3. *Objeto de las ayudas.*

Estas ayudas a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras tienen por objeto promover la primera instalación de jóvenes agricultores y agricultoras menores de 41 años como titulares o cotitulares de explotaciones agrarias, con el objetivo de fomentar su acceso a la titularidad de las explotaciones agrarias mediante ayudas para la puesta en marcha de la explotación.

4. *Créditos presupuestarios.*

El gasto total en la presente convocatoria asciende a 900.000 euros, con cargo a las siguientes partidas del programa de Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias del presupuesto del ejercicio 2020 del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural:

1.0240.400.470.00.08.2020: 600.000 euros.

5.0240.400.470.00.08.2023: 300.000 euros.

En todo caso, y dada la tramitación anticipada del expediente, la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2020 en el momento de la resolución de la concesión.

5. *Importe de las ayudas.*

El importe de las ayudas se establecerá de conformidad con lo dispuesto en el artículo 32 del decreto foral regulador de las mismas.

6. *Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.*

Las solicitudes de ayuda deberán formalizarse en la Oficina del Joven Agricultor/a (oficina comarcal agraria correspondiente a la ubicación de la explotación agraria), a partir de la fecha de publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y hasta el 17 de enero de 2020, ambos inclusive.

7. *Documentación a presentar con la solicitud.*

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

— Fotocopia del DNI, en caso de que no obre en poder del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

— Declaración responsable de no hallarse incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de persona beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Plan empresarial que incluya los aspectos indicados en el artículo 30 del decreto foral regulador de estas ayudas.

— Certificado de la Seguridad Social de no percibir pensión de invalidez absoluta o invalidez total proveniente de la actividad agraria.

— Documento privado del contrato de transmisión de la titularidad de la explotación o la integración en una explotación asociativa.

— Fotocopia de los certificados de los cursos de formación agraria realizados.

— Presupuesto o justificante de gastos ocasionados por la instalación como agricultor o agricultora joven.

— Datos de la cuenta donde habrá de ingresarse el importe de la ayuda.

El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, así como la información tributaria (IRPF) que acredite que la persona solicitante cumple los requisitos exigidos para ser beneficiaria de las ayudas. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organis-

EK\CV GAO-I-2019-07668

tik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

8. *Jakinaraztea.*

Prozeduraren ebazpena interesatu guztiei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluak jasotakoaren arabera.

mos emisores de los mismos; en caso de que ello no fuera posible, podrá requerirse excepcionalmente su aportación por la persona solicitante.

8. *Notificación.*

La resolución del procedimiento será notificada a todas las personas interesadas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

EK\CV GAO-I-2019-07668